

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4904

210/2021 DEKRETUA, irailaren 21ekoa, zeinaren bidez 4.078,66 euroko kredituak txertatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2021eko aurrekontuan, Estatuko Administrazioetik Argitalpen Seriatuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua (ISSN International Standard Serial Number) esleitzeko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzearen ondorioz.

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren 75. artikuluan xedatzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eta/edo zerbitzu berriak eskuratzen baditu Estatutik, eskumen-aldaketaren ondorioz sortutako betebeharrak eta likidatuko diren ekonomia-eskubideak betetzeko behar diren kredituak txertatu beharko dira aurrekontu orokorretan; horretarako, Jaurlearitzak eskumen eta/edo zerbitzu berriari dagokion aurrekontua onartu beharko du ekitaldia amaitzeko geratzen den aldirako, Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia azkeneko aldiz Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeiei egun baliodun igaro baino lehen.

2021eko uztailaren 7ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen ekainaren 29ko 475/2021 Errege Dekretua, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen baitzaizkio Argitalpen Seriatuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua (ISSN International Standard Serial Number) esleitzeko Estatuko Administrazioak dituen eginkizunak eta zerbitzuak, eta 2021eko uztailaren 7ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, aldiz, uztailaren 6ko 172/2021 Dekretua, zeinaren bidez onartzen baita Transferentzien Batzorde Mistoak 2021eko maiatzaren 10ean arlo horri dagokionez hartutako erabakia.

Hori dela eta, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2021eko irailaren 21ean egindako bileran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Kredituak txertatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2021eko aurrekontuan.

1.– 4.078,66 euroko gastuen egoera-orria onartzen da, betebeharrak hauei aurre egiteko behar den zenbatekoaz osatua: Argitalpen Seriatuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua (ISSN International Standard Serial Number) esleitzeko arloko betebeharrak Estatutik eskualdatzearen ondoriozkoak.

2.– Kupoaren minorazio bidez finantzatu beharreko eskualdaketari lotutako kostuagatiko diru-sarreraren egoera-orria. Kontuan hartuta 3.994,54 eurokoa dela eskualdatzen den arloari lotutako Estatuko urteko kostua.

3.– Era berean, diru-sarreraren egoera-orrian txertatzen da, indarrean jartzen den egunetik aurrera, Espainiako Liburutegi Nazionalak urtero Euskal Autonomia Erkidegoaren esku jarriko

2021eko irailaren 24a, ostirala

duen transferentzia, eta, 2021eko ekitaldian, transferentzia horren urteko zenbatekoa kontuan hartuta, 84,12 eurokoa izango da.

4.– Aurreko apartatuetan aipatzen diren sarreraren eta gastuen egoera-orriak 2021eko urriaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arteko aldiari dagozkio. Honela xehatzen dira:

Gastuak: 4514 Programa. Historia eta arte ondarea.

Euro

238.99	Argitalpen Seriatuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua (ISSN International Standard Serial Number)	4.078.66
	Guztira	4.078,66

Sarrerak: 9111 programa, Foru Aldundien ekarpenak, eta 9211 programa, Espainiako Sektore Publikoarekiko finantza-harremanak.

Euro

9111	421.01	Foru Aldundien eragiketa arruntetarako transferentziak eta dirulaguntzak	647,91
	421.02		1.337,78
	421.03		2.008,85
9211	439.00	Espainiako sektore publikoaren beste erakunde batzuen eragiketa arruntetarako transferentziak eta dirulaguntzak	84,12
		Guztira	4.078,66

Bigarren artikulua.– Kredituak txertatzearen ondorioak.

1.– Ekonomia eta Ogasun Sailak aurreko artikuluan aipatu diren gastuen eta sarreraren egoera-orriak integratuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko Aurrekontuan, dagozkion ondorio juridikoak izan ditzan, eta, bereziki, egoki gauza daitezzen egoera-orri horien kontabilitatea, exekuzioa eta ondorengo likidazioa.

2.– Martxoaren 23ko 2/2007 Legearen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak finantzatzeko Foru Aldundiek egin beharreko ekarpenak zehazteko eta baliabideak egoki banatzeko metodologia onartu zen, 2007-2011 aldirako; bada, bat etorri indarreko metodologia horren 9. artikuluko 1. apartatuan xedatzen denarekin, kupoaren metodologiatik eratorritako kenkarietz gain (metodologia horren 2. artikuluan adierazitakoak), kenkari gehigarri bat egingo da 2021eko ekitaldian, eskualdatzeari lotutako Estatuaren urteko kostu osoari 3.994,54 euro kenduta.

3.– Aurreko paragrafoan aipatutako metodologiaren 9. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorri, eta eskualdatze berriak finantzatzearen, Foru Aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari ekarpen zehatz eta osagarri bat egingo diote 2021eko ekitaldian, aurreko apartatuan adierazitako zenbateko berekoa.

4.– 173,47 euroko urteko zenbatekoa hainbanatzetik ateratzen den zenbatekoa ordainduko dio Espainiako Liburutegi Nazionalak Euskal Autonomia Erkidegopari, 2021eko ekitaldian. Zenbateko

2021eko irailaren 24a, ostirala

hori urtero eguneratuko da, sektore publikoan lan egiten duten langileen ordainsariek duten aldatzearen arabera zenbateko bera aplikatuta.

5.– Aurreko 2., 3. eta 4. apartatuetan adierazitako ondorioak arlo honetako eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea eraginkor egiten den egunetik aurrera aplikatuko dira.

Hirugarren artikulua.– Kupoan gutxitze bat aldatzearen ondorioak.

1.– Abenduaren 28ko 11/2017 Legeak Euskadiko Kupoa zehazteko metodologia onartu zuen 2017-2021 bosturterako; bada, metodologia horren 11. artikulua 1. eta 2. apartatuen arabera, 2021eko ekitaldiko kupo likidoa benetan gutxitzearen ondoriozko emaitza izango da behin betiko zenbatuko dena dekretu honen aurreko artikulua 2. apartatua aipatutako kenkari osagarrian.

2.– Emaitza hori bera zenbatuko da, halaber, dekretu honen aurreko artikulua 3. apartatua aipatu den ekarpen berezi eta osagarrian.

3.– Baimena ematen zaio Ekonomia eta Osasun Sailari artikulua honetan ezarritakoa aplikatzearen ondorioz egin behar den aldaketa oro egiteko.

Laugarren artikulua.– Legebiltzarrari jakinaraztea.

Ekonomia eta Ogasun Sailak, Eusko Jaurlaritzaren izenean, Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari jakinaraziko dio dekretu honetan xedatutakoaren babesean egindako kreditu-kontsignazioa.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko irailaren 21ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.